

Nafarkaria

• ostirala • 1997ko azaroaren 21a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Baztan • Xaloa Telebistaren lehen emisioa.

Ana Gonzalez • Artisautzaren arazoez eleketan.

• LUIS AZANZA



**Ondare
artistikoa
mantentzen lan**



Betelu • Soravilla hotelean eginen da zaharren egoitza

Larraun, Lekunberri edo Leitzan egitea ere aztertu zuen Gobernuak

Inguru guztian inolako zaharren egoitzarik ez zegoela-eta beharra guztiek ikusten zuten arren, denak ez zetozen bat etxe horren kokapena proposatzean.



Soravilla hotela izandako etxean kokatuko da zaharren egoitza.
URKO ARISTI

LARRAUN, LEKUNBERRI, LEITZA eta Araitz-Beteluko udalek proiektu bana aurkeztu zuten duela urtebete. Baina bailara ba-koitzean erresidentzi bat egitea bidegarria ez zenez, denak akordio batetara iristea gonbidatu zituen Nafar Gobernuak. Baina ba-koitzak bere proiektua eta bere interesak defendatzen zituenez, liskarrak eta eztabaidak baino ez ziren izan udaletxe guztien artean izandako bileretan. Gauzak nola zeuden ikusita, Nafar Gobernuaren esku geratu zen kokapenaren erabakia. Azkenean, Ongizate Sailak Beteluren aldeko apustua egindu.

Aurkeztutako proiektu guztiek ba omen zuten baldintza egokirik, baina azkenean, baldintza gehienak Beteluko asmoak bildu omen ditu. Leitzak, esate baterako, biztanle kopururik altuena zuen bere alde, hau da, balizko bezero gehienak biltzen zituen. Zaharren erresidentzia Lekunberrin eginez gero, komunikazio eta garraibide-ekiko kokapen egokiena izango luke, larrialdietan ere Iruñerako bidea moztu eta azkartu egingo litzatekeelarik.

Beteluko aukeraren aldeko apustuaren argudio nagusia ur termalena dela azaldu du Ongizate Sailak, bertako klimaz gain. Izan ere, aspaldi batean Beteluko bainuetxe ospetsua izandakoan egingo da zahar-etxea, eta horrenbestez, bertako ur termalak aprobetxatuko dituzte. Guztira, 63 aiton-amonentzako lekua eskeinitu du erresidentziak. Egitasmo handia aurrera ateratzeko, kasik 333 milioi pezetako aurrekontua dute (13,33 milioi libera), eta %30a Nafar Gobernuak jarriko badu ere, beste 70a Araitz eta Beteluko udaletxeek emanen dute.

Albistea ezagutu bezain laster, beteluarren pozari, gainerantzekoen haserrea gehitu zitzaion. Leitzako alkateak, Mikel Ilarregik harridura azaldu zuen: «Guk itxaropen handiak jarriak genituen

proiektuan, izan ere, urteetako esperientzia duen enpresa batek eginga baitzen. Gainera, gure us-tez, biztanleen kopurua kontutan hartu beharko litzateke». Larraungo alkateak, Pedro Manuel Barberia pozik ez zegoen arren, Beteluko alkatea zoriondu zuen. «Gure bailaran ez egin arren, gure zaharrentzako erresidentzia ere badenez, ahal dugun guztian laguntzen saiatuko gara, inguruan erresidentzia izatea ona baita». Ideia berdinekoa zen Larraungo artzapeza, Juan Bautista Irazoki ere: «garrantzitsuena, zaharrentzako egoitza txukun eta egokia edukitzea da, kokapena gutxiene-koa da».

Beteluko alkatea Jesus Gonzalez zen pozik zegoen bakarra Gobernuaren erabakia jakin ondoren. «Urte eta erdi generaman lanean proiektuarekin, eta oso ongi

aztertua genuen. Zinegotzi guztien artean aztertu izan dugu, antzeko beste egoitzak bisitatu ditugu, beti ere Beteluko bezelako Udaletxe batek izan ditzazken mugak kontutan hartuta». Beteluko alkateak argi du, urarena oso arrazoi garrantzitsua izan dela. Ez alkatea bakarrik, beteluar gehinak ere oso pozik daude albistea jakin zutenetik. Izan ere, Leitzarango autobidea zabaldu zenetik, zonalde hori nahiko bazterturik geratu zen, eta egoera nahiko zaila zen industrian eta hostalaritzan. Erresidentziak, inongo zalantzarik gabe, bizitasuna emango dio zonaldeari. Bestalde, zaharren egoitza dela eta sortzeakoak omen diren 40 lanpostu berriak denon mesederako izango dira.

→ Urko Aristi

Gares

Euskararen VI. Kultur Astea heldu den astean

EUSKARAREN VI. ASTE KULTURALA antolatuta du Garesko Udalak Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Aste Kulturala etzi hasiko da, eguerdiko 12:00etan, aurkezpen festarekin. Garesko plazan Berriozarko Zantantzar txikiak, Jon eta Alaitz Bengoetxea trikitilariak, Garesko Zubia dantza talde txikia eta Nafarroako Haur Kantu Txapelketan parte hartu duten Barañaingo eta Irunberriko Arangoitiko Ikastola taldeak ariko dira.

Astelehenean Susana Irigarai historialariak XX. mendeko lehen erdialdeko bizitza Izarbebarren izeneko erakusketa zabalduko du. Erakusketa azaroaren 30a arte egonen da zabalik Garesko udaletxeko erabilera anitzeko aretoan. *Komikta: hizkuntza truditetan gaia ikasteko aukera ere izanen da, mintzaldi-tailer-rra eskainiko baitute gai horren inguruan. Azkenik, gaur zortzi hainbat ekitaldi izanen dira asteari amaiera emateko. Arratsaldeko 17:00etan Antzezki zuna taldeak Pinotxo txotxongilo ikuskizuna eskainiko du, eta ordu berean Andoni Chivite Irakasleentzako Nafarroako Gobernuko Laguntza Zentroko orientatzaileak @Euskara eskolan eta eskolatik kanpo. Haurren ikas-prozesua indartzeko bideak mintzaldia eskainiko du gurasoentzat. 19:30ean karaokea izanen da Mena plazan, eta 21:30ean, berriz, Murugarren Garesko euskaldunen aldizkariaren herri afaria.*

→ Kristina Berasain

muga enea

MIKEL REPARAZ



Herriko xaharrak lotsatu egiten zaizkit oiritzen dutenero, Ama Birjina ikusi bene-benetan ez zutela ikusi esaten dute. Hala ere -Errepublika garaia izanen zen- Nafarroako hainbat herritako hainbat gaztetxok agerraldiak bizi omen zituzten basoan, bidezidorretan, sorotan, karrikan bertan. Maria non-nahi agertzen bide zen tenore hartan, gaztetxo inuzentek lekuko zirela beti.

*Ezkioga fenomeno*a deitu izan zitzaion hura ez zen izan, ordea, haurren irudimenaren emaitza soil- la. Begitazio haiek pertsona anitzek izan ohi zituzten batera, talde-irudipenak ziren, trantze kolekti-

Abdukzioak

boak. Gainera, herrietako apaizak eta Eliza bera balizko esperientzia mistiko haien aurka azaldu ziren: *Vade retro, x-files!*

Agerpen horien lekuko asko bizirik daude gaur, baina urrik hitz egiten dute horretaz publikoki. Lotsatu egiten baitira. Jesukristoren amarik ikusi ez zuela diote herriko xaharrek, eta haien kontaktuzuna sineskaitz bezain liluragarria da: «Txubeldiren etxearen aurrealdean biltzen ginen», dio Sakanako agure batek, «eta han, arbol baten arrama tartien, jainkoak ikusten ginuzkien...». Ama Birjinari ez, jainkoak ikusten zituzten. Jainkoak!

Baina jainko zahar horiek haurrak trantzetik ate-

ra eta esnatzearekin desagertu ziren, eta haien ordeztu misterio musika bat piztu zen, eta *loff*-eko ahots batek hastera zihonan telesailaren izenburua esan zuen. Txubeldiren atariko jainkoak Aizkorriko Damaren atzetik desagertu baitziren, abdukzio eta klonazio debekatuen mesedetan.

Ruper Ordorika Iruñean izan zen herenegun iluntzean, Mendebal Euskal Herriko baladak eta antzinako koplak kantatzen hamaseigarren mendeko kantaitarekin ari zelarik, aitona abduziatuak etorri zitzaizkidan burura, eta barrez hasi nintzen emanaldiaren erdian. Zertan ari haiz, Ruper? Uztak gitarra eta jotzak teknoa!

Burlata



Bihar hasiko da Nafarroako Kantu Txapelketa

KANTUZALEEK AUKERA POLITA dute bihar Burlatan, Euskal Kantuzaleen Elkarteak bi urtean behin antolatzen duen Nafarroako Kantu Txapelketa hasiko baita. Txapelketan guztira hogei-ta hiru partaide ariko dira nor baino nor kantari; hamahiru talde, zortzi bikote eta bi bakarlari, hain zuzen ere.

Bihar Burlatako Kaputxinoen ikastetxean, arratsaldeko 17:00etan, txapelketako lehenengo kanporaketa izanen da, eta hamar lagunek kantatuko dute: sei taldek eta lau bikotek. Txapelketako bigarren kanporaketa heldu den abenduaren 11n eginen da, Altsasuko Mikel Deunaren Lanbide Heziketarako Institutuan, 17:00etan.

Bi kanporaketotan hobeak sailkatzen diren partehartzaileak sailkatuko dira abenduaren 20an Doneztebeko Bortatxo dantzalekuan 16:30etan hasiko den finalera. Egun horretan kantuan duten trebezia erakusteko aukera izanen dute Malerrekako herrian.

→ Irene Arrizurieta

Baztan • Xaloa Telebista emititzen hasi da

Xorroxin Irratiak landutako proiektuaren lekukoa hartu du Xaloa Kultur Elkarteak

Xaloa Kultur Elkartearen eskutik, joan den asteartean aireratu zituen lehen irudiak Xaloa Telebistak. Eguberritik aurrera programazio finkoagoa osatu nahi dute.



Mariano Izeta konbidatu zuten Xaloa Telebistako aurrenetako saio batera • JAGOBA MANTEROLA

XALOA TELEBISTAK ASTEARTEAN zabaldu zituen lehen irudiak, Elizondoko eskolan jarri duten platotik. Denboraldi batez aurkezpen karta airean eduki ondok, udazkeneko feriak pasa berriak direla aitzaki hartuta, Elizondoko eta Doneztebeko ferietako irudiak bildu, eta erreportaiak prestatu zuten. Haren irudiak eman zituzten asteartean, Xaloa Telebistaren lehen irudiak izan direnak. Horrekin batera, Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako agintariak Baztanen zirela aprobetxatuz, hamar minutuko elkarrizketa labur bat ere eskaini zuten. Ofizialki ordea, oraindik ez da hasi emititzen telebista. Euren harkailuak prestatu dituztenek baino ez dituzte jaso irudiak. Hartzeko modua propaganda bidez zabalduko dute, eta hori laister izanen da.

Xaloa Telebistaren asmoa da urtea bukatu bitartean astean bitan emititzea. Joseba Igarabide

telebistako arduradunaren hitzetan, «Eguberritik aitzinera hasiko gara programazio finkoago batekin, bitartean probetan ibiliko baikara. Behar bada, egunero emititzen hasten garenean, edukia eta saiok hainbatetan errepikatuko dira, baina hagitz epe motzean egunero magazin eta albiste bat egingo dugu».

Egunero emango den magazine horren gidioa prestatua dute. Oordu bat eta hamar minutuko iraupena izango du (albistegia barne), eta astelehenetik ortzira lera emanen dute. «Edukietaz solasteko, akaso, goizegi da. Aitzinatu daiteke, erreportaiak motzak eta elkarrizketak izanen direla eduki nagusiak» argitu du Igarabidek.

Kalera ateratzeko tresneria ere

badute Xaloa Telebistan, «baina ahal den neurrian jendeari elkarrizketak egiterakoan gure platera hurbil daitezten eskatuko diegu, kostuak murriztearren».

Inbertsio handiak ditu telebistak. Iturri guztiak nahikoak ez diren arren, proiektua aurrera ateratzeko, prestatzeko eta orain arteko lan guztia egiteko Europako Batzordetik jaso du dirulaguntza Xaloa Telebistak. Antzeko dirulaguntza ere jaso du Ttipi Ttipa aldizkariak telebistaren egitasmoa aitzinera eramateko, baina oraindik gibelatuak daude horretan. Telebista aurrera aterako den zalantzan dago oraindik, eta atzeratzeotan ez du data zehatzik.

→ Jon Abril

Donesaturdiko oilarra lumatzen
Juan Kruz Lakasta

Maria del Puy

Maria del Puyk 28 urte ditu, eta betidanik Alde Zaharrea bizi izan da, lehen San Francisco plazan gurasoekin, eta egun San Jose enparantza bakarrik. Agian bizi zen tokian bizi zelako, Mapu (horrela deitzen dute Maria del Puy) goiz hasi zen lagunekin tabernaz taberna. Navarrerria kaleko Mejillonera hartu zituzten lehen poteak: garagardo katxi erraldoi bezain merkeak. Gero, Jarautan kalimotxo edaten hasi ziren (La Calle lehendabizi, Katu, Giroa eta Deportivon geroago), eta azkenean Caldereria ingurura iritsi ziren (Toki, Diez, Tut, Zuriza...), berriro garagardoan murgiltzeko.



Urte andana igaro da Caldererira heldu zirenetik, baina Mapuk hortxe segitzen du, inguruko betiko tabernetan tinko. Beno, agian ez horren tinko. Izan ere, garagardoa edatetik Caci-que rona limoiarekin nahastuta edatera pasatu bada ere, bes-tondoak gero eta latzagoak dira. Joan den igande eguerdian, esate baterako, zisko eginda esnatu zen, buruko minez eta goragalez, laburbilduz, hilda. Errailetako nahasmendua eta buruko mina ahantzi nahirik, benetan hilko balitz bere gorpu gastatuarekin zer egin beharko luketen pentsatzen hasi zen.

Ez luke ehozketarik nahi: betidanik klaustrofobikoa izan da eta (igogailuetan ez da sartzen 10. pisura joan behar duenean ere). Beraz, erraustea litzateke hoberena. Haatik, ez litzaioke gustatuko, egiten ohi denez, erraustak mendian, esaterako, Urbasan botatzea. Hipokrisia hutsa litzateke, bera ez da eta sekula joan mendira. Erraustak Takonerako harries-tatik behera haizeratzea ere bururatu zitzaion, baina baztertu zuen, horteregia litzatekeelakoan. Azkenean, bide egokia topatu zuten: erraustak zerrautsa balira bezala botatzea betiko taberna horietako bateko zoruan, lagunek gainean parranda egin dezaten. Pentsamenduak Irribarre meharra eragin zion, Irribarre meharak buruko mina areagotu zion, eta buruko minak goragalea. ●

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Euskara gau eskola eta banketxeetan

Herria astekariko azken zenbakiak, beste hainbat gairen artean, AEKren berri dakar bere orrialdeetan: «Gau Eskolen sartzeari egin da eta zertan diren ageri da orai aski garbi. 1.244 lagunek izena eman dute Iparraldeko Gau Eskoletan, joan den ikasturtean 1.010 zirelarik. 234 ikasle gehiago beraz, emendatze guziz inportantea, %23koa. Azpimarratzekoa da zenbait tokitan gertatu den emendatzea: Hiriburua, Arrosa / Baigorri edo Miarrizten adibidez».

«Aurten 21 Gau Eskola lanean ari dira Ipar Euskal Herrian (jaz 18) zombait tokitan Gau Eskolak edo talde berriak sortu baitira.

Hala nola Saran, Bidarten, Heletan, Kanbon eta Arrosan. Kopuru horiei Paue, Bordale, Tolosa eta Pariseko ikasleak gaineratu behar zaizkie: 150-200 inguru. Bestalde sartzeko honetan sekulan baino jende gehiago joan dira hegoaldeko barnetegira, hots 4 hilabete-ko ikastaroa denbora osoz segitzerat. Sartzeko frango ontsa joan da beraz. Aurtengo ikasle kopuruaren emendatzeak azken 9 urte hauetan etengabe gertatu den bezala, ongi erakusten du euskararen ikasteko eskaera gero eta zabalagoa dela gure gizartean. Honen aitzinean podere publikoek premia handiz erantzun behar dute».

Herriak euskara banketxeetan sartzeko kanpainaren berri ere ematen du: «Euskal Konfederazioak, EHEk eta Seaskak egin duten kanpainaren fruituak agertzen hasiak dira. Hiru banketxeek inprimatzen dituzte xekierak euskaraz eta frantsesez: horiek dira Credit Agricole, Credit Mutuel eta Banco Bilbao Vizcaya. BBVk inprimatzen ditu xekier guztiak bi hizkuntzetan, Frantses estatuan dituen bezero/klient guzientzat. Aldiz C.A eta C.M banketxeek galdatuko duteneri baizik ez dituzte igorriko. Konfederazioak orroitarazten du hiru banketxeek ezetz ihardetsi diotela: Societe Generale, BNP eta Postak».

Ondarea zaharberitzen

Bi urte itxirik egon eta gero, Arraiozko eliza eta hango erretaula barrokoa konpondu dituzte

Baztan bailarako Arraioz herriko elizak berriro ere ateak irekiko ditu. Aldareko erretaula barrokoa zaharberritu eta eliza konpondu eta gero heldu den azaroaren 30ean zabalduko dute.

ONDARE HISTORIKOA GORDETZEZA EZ DA LAN ERRAZA. Mendeak joan mendeak etorri ondare hori kaskartzan doa eta zaharberritu behar izaten da gorde nahi bada. Zaharberritze behararen eredu da, Nafarroako beste eraikinen artean, Arraiozko (Baztan) Jasoneko eliza eta, batez ere, hango erretaula. Eliza, bi urte itxirik egon eta gero, heldu den azaroaren 30ean zabalduko dute berriro. Hori bal, XVIII. mendeko erretaula zaharberritu eta eraikin guztia margotu eta txukundu ondotik.

Belateko gainak nagiak oraindik kendu gabe dituela hasten dira lanean Gela Martinez eta Beatriz Lekunberri zaharberritzaile iruindarrek Arraiozko elizan. Bi hilabetez elizako erretaula zaharberritzen aritu eta gero, aste honetan azken ukituak eman dizkiole. Beraiek aldearen dagoen Jasoneren erretaula nagusia eta aldeetan dituen beste biak zaharberritu dituzte. Elizaren gainontzeko moldaketak herriko jendeak egin ditu. Zaharberritze lanak hasi baino lehen erretaula, argizariak botatzen duen kearen eraginez, oso beltza zegoen eta aurreko kolorea galdua zuen, saguzahar kakak bazituen nonahi eta hezetasunak eragindako orbanak atzealdean eta elizako paretetan. Orain, berriz, azken ukituek eragindako azaleko hautsa eta pintura eta barniza eman berriak uzten duten usain sarkorra besterik ez da sumatzen.



Gela Martinezek, bere lankideek bezala, santuak mimo handiz zaharberritu eta garbitu ditu.

• LUIS AZANZA

nez, «arras hondatua zegoen. Bi urte egon da itxirik eta herriak eskatu zuelako hasi ziren moldaketa lanak». Heldu den azaroaren 30erako ireki nahi dutenez, berritze lanak oso azkar egin dituzte, auzolanean. Herriak 250 biztanle ditu eta eliza moldatzea 8 milioi pezeta (320.000 libera) kostatu zaie. Artzapezikutzak eman dituen 700.000 pezeta izan ezik, beste guztia herriak ordaindu du.

Erretaulak lan gehien

Arraiozko erretaularen trataerak hilabete gehiagoren premia bazuen ere, garbiketa eta zenbait moldaketa bakarrik egin zaizkio, ez delako gehiagorako betarik izan. Lan handiena erretaula zaharberritzea izan da eta horrek ekarri ditu buruhauste gehien. Nafarroako Monumentuen Katalogoak dioenez, Neoklasikorako bidean dagoen XVIII. mendeko bukarako erretaula barrokoa da Arraiozko elizakoa. Nafarroan Berpizkunde garaiko erretaulak dira ederak, eta ondorengoak bigarren maila batean kokatzen dira. Zaharberritzaileek diotenez, aldre nagusiko zein bi aldeetako erretaulatan biltzen diren irudiak «ez dira balio handikoak eta oso ezaugarri herrikoak dituzte, landa artea baita. Era berean, tallak balio handikoak ez diren arren, osotasunean badute balioa Barrokoak direlako eta urrezatuak».

Lana azkar eta ziztu bizian egin behar izan dute eta zaharberritzea ez da oso sakona izan. Lehen begiratuan erretaulak ez omen zuten oso



XVIII. mendeko Arraiozko elizako erretaula bi hilabeteetan moldatu dute. • LUIS AZANZA

mekanikoarekin. Nahiko suabea zen formula bat lortu eta gero, garbiketa kimikoa egin zuten berniz herdoilduak kentzeko. Nolanahi ere, beste erretaula askok ez bezala, honek ez zuen pipirik eta horrek lana erraztu die. «Zulotxo bat ere ez dugu aurkitu. Egurra ona da, kalitate handikoa, eta eskertzekoa da. Hormaren kontrako ainguraketak ere oso ongi zeuden. Arazoak atzealdeko beheko partean eman dizkigu, hezetasunak desegin zuelako dena. Orain barnean zuraje berria jarri dlogu».

Berez erretaularen zurajea denaz gain, irudiak ere moldatu behar izan dituzte. Irudiak, besteekin egin moduan, urarekin garbitu zituzten. Baina hori ez da egin zitzaizkien aldaketak bakarrik, ustez hobeki beharrez norbaitek dena bertiz margotu zuten pintura orijinalak desagertaraziz. Presaka ibili direnez, ez dituzte berreskuratu. «Dagoen pintura kentzeko astirik ez dagoenez, orijinalak nolakoak ziren ikertu eta gero, dagozkien koloreak zein diren jarraitzeko bideak utzi ditugu». Agerian gelditu diren koloreak ez dira barrokoak, modernoak oso baizik. «Irudien atzealdean bistatzen da jantzien koloreak urdin argiak eta loreduak direla, oso politak eta barrokokoak. Oso harrigarria da gizon bat jantzita ikustea eta hemengoek kendu egin zuten. Garai hartan urrea sartzea, Berpizkundean ez bezala oso ohikoa ez izan arren, urrea ere ageri

Lehen begiratuan erretaulak ez zuten osaketa ona. Kasortutako zuturari, hezetasunari eta mendeetan berritzen joan diren zuturari, erretaula urarekin garbitu izana garrantzitsua eta

dute esku mahuketan. Orain ageri diren baino askoz ere aberatsagoak, biziagoak eta politagoak ziren. Erretaulak pipi arazorik izan ez badu ere, irudietan aurkitu dute, besteak beste ezkerreko erretaulako San Sebastianen irudian. Piplak jana zegoen. Bizkarroiak hil eta irudia ongi finkatu ondotik, barruan duen hautsa gogortu eta sendotu egin dute. Erretaula barrokoa den arren, San Sebastianen irudia XVI. mendekoa da eta beste santuen irudiak XVII. mendekoak, guztiak erretaula baino «zaharragoak, politagoak eta finaagoak dira».

Erretaularen zaharberritzeak lan gehien eman duen arren, bestetik ere egin da elizan. Hezetasunak ilunduak zeuden paretak pintatu, aldareko sabaiko harria atera, zokaloak jarri eta berogailua konpondu dute. Aurrerantzean hezetasuna izanen da arazo larriena, eta hura kenduz gero, erretaula eta elizan, gutxienez, beste bi mende egon ahal izanen da moldaketa beharrik gabe, betiere, norbaitek ez badie berriz ura edo pintura pasatzen.

→ Irene Arrizurieta

Egoera ona baina mantenimendu falta

Arraiozko Jasoneko eliza, bigarren mailako garrantzia duten beste ondare artistiko-kulturalak bezala, auzolanean, eta herriak edota Artzapezikutzak jarritako diruarekin moldatu bada ere, herrialdeko ondarea moldatzeko aurten 700 milioi pezeta (28 milioi libera, hor nonbait) zuen eta jadanik guztiak bideratuak ditu, nahiz eta orain arte 461 milioi pezeta (18,44 milioi libera) gastatu dituen Nafarroako Gobernuak Principe de Viana kultur erakundeak. Diru gehien eraman dutenak beste eraikin batzuk izan dira, beste batzuren artean, Iratxe monasterioaren mantenimendua 85,5 milioi pezeta jaso ditu, Aralar Mikel Deunaren Santutegiako estalpearen moldaketak 78 milioi pezeta pasatxo, Fiteroko Zisterar monasterioaren estalpeak, giroak eta sakristia konpontzeko kasik 72 milioi pezeta eta Noaingo Ubidearen lehengoratzak 46 milioi.

Carlos Idoate Nafarroako Gobernuak Ondare Historikoko Zerbitzuko zuzendariak dioenez, herrialdeko eraikin historiko-artistikoen egoera orokorra «ona» da. Zaharberritze eta moldaketa lanak larrtasuna eta eraikinaren interes kulturalaren arabera egin direla aintzat hartuz, presa handiena zerk duen zehartzea zaile da, eraikin dexente daukelako laguntzaren beharrea. Dena den, behin moldaketa lanak burutu eta gero, ondokiko denbora joan ahal da etortzen diren arazoak behar bezala mantentzen direla ez delako egiten gerta-

zen omen dira. «Nolanahi ere, eraikinez eraikin erreparatzen hasiko bagina, nabardura asko egin beharko liriteke. Eraikin monumentalok handiak dira, mantentzeko garestiak, eta ez dira zaintzen. Horrek denbora joan ahal arazoak dakartza. Askotan oso arazo larriak azaleratzen dira, besteak beste, hezetasuna edota erastien diren teilatuak. Arazo horiek guztiak eraikinar behar bezala egoteko nahitaezkoa den mantentzen direla ez delako egiten gerta-zen dira. Guk dirua moldatzeko bakarrik ematen dugu eta mantentzen diren solilik jabearen ardura da», gaineratu du.

Datorren urterako aurrekontua gutxitu egingen den arren, aurtengo lanak bukatu gabe, jadanik heldu deneko lehentasunak markatzen hasia da Principe de Viana. Heldu den urtean eskua sartzeko dute, besteak beste, Artaxonako San Saturninoko eliza gotikoan, Cabanillaseko eliza erromanikoan eta Iruñeko eta Tuterako katedraletan. Canaleko Jauregiaren zaharberritzea bukatuko dute eta museo-artxibo bilakatuko da. Bien bitartean Nafarroako hiriburuko klastroa eta Iruñeko kanpo estalkiak eta aurrealde moldatuko dira.

Eraikinen egituraz landa, barruko ondare garrantzitsuenak zaharberritu dira 1996an: Otsagiko eta Lapoblacioneko Berpizkunde erretaulak kasu. Lehenean eskultura piezak eman dute lan handiena eta bigarrenean duen polikromia aberatsak, adituen ustean Nafarroako hobereena baitu. 1997rako, berriz, Uxueko monasterio XVI. mendeko Aulkeria eta XV. mendeko Artaxonako elizako eta Tuterako katedraleko erretaulak konponduko dituzte.

Eliza, heldu den azaroaren 30ean zabalduko dute berriro. Hori bai, XVIII. mendeko erretaula zaharberritu eta eraikin guztia margotu eta txukundu ondotik

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Manuel Urban Arnedo

Urban bertso egilea izan zen debozioz, eta kazetaria beharrak bultzaturik: beharrari gure eskerrak, bertso gintzan sobera aparta ez zen eta



Gibelego mende erdialdean sortu zen tuterar xalo hura, Manuel Urban Arnedo alegia, 1893.eko azken egunean zendu zitzaigun, bizitza osoa, llaburra baina betea, elearekin uztarturik eraman ostean. Luis Gil Gomez erki-deak, Tuterako festa programarako urtero ontzen ohi zuten Tuterar ahanziak izeneko sailean, orrialdea eskeini zion 1954.ean. Harrez geroztik, ahanzturan dirauke poeta arinak, eta Esperanza Agirrek, Shakespearerekin batera, bigarren hezkuntzako ikasleek ikasi berri beharko dituzten humanitateetako datuen parekoa ez dakiokelakoan, gurean ekartzea sobera egi ez dagoela ebazteko arrazoia tole dugula bagaude.

Urban bertso egilea izan zen debozioz, eta kazetaria beharrak bultzaturik -beharrari gure eskerrak, bertso gintzan sobera aparta ez zen eta-. Tuterako liburutegi barrokoan -eta aforoarena alde batera utzirik, estetika denez bezanbanean, Iruñekoarena aski ginetik dagoena- Manuel Urbanek amaren aldetiko Alejandra Lopez-Goikoetxea Gaston zuen amonari eskeini 1880.eko otsailaren 26ko bertsoetgia dago irakurgai. Eskuizkribu hirukoitzak zortzi orrialdetako kopuru asimetrikoa zipriztintzen du: *Invocación*, *Cantar* eta *Así sea* olerki erromantikoak balizko maitale ezinezkoari zuzenduak. Handik hiru urtetara, bere lehenbiziko bertso bilduma eman zuen argitara, Zaldubako Comas baitan. Aitari eskeini *Ecos del alma* hartan ageri olerkiak 1877.etik ordura artekoak ditugu, Tuterako argitalpen ezberdinetan zegoenez agertuak zirenak. Eite erromantikoa duten hauek, ordea, nekez garai dezakete 1891.ean jaioterrian argira elkiarazi *Rinconete y Cortadillo* istorio satirikoa. Ruperto Bosque Rosak *Diálogo cogido*

al vuelo en el Cofrete solasaz egin sarreraren ondoan, Manuelek borobiltzen digu lanaren nondik norakoa: *«La historia de Rinconete / y Cortadillo es lo diario / lo que se ve en todas partes / lo que todos comentamos / y ninguno corregimos / a pesar de odiarlo tanto»*. Esangabe doa, Erriberako hiriaren egoera politikoa salatzea ezkutuko helburu ageria du lan honek: *«Hace falta gran sentido / práctico. Los concejales / que han de pasar como tales / suelen vivir disfrazados / hasta después de votados. La plebe que siempre juzga / bien o mal, por la apariencia, / y la apariencia de entonces / era la de hoy, esa eterna / lucha entre los propietarios / y comerciantes; la téa / que no apagarán los años»*.

Halaz guziz, goazen Urbanen lanik sendoena begiztatzeraz, kazetariarena hotz. Sortarazi zuen aldikako argitalpenetan 1868-1870 biurtekoan iraun zuen *El preguntón* astekari liberal-satirikoa lehenengoa izan zen. Geroantzean honakoak elkiarazi zituen: *Como vaya yo* 1879.eko astekari satirikoa; Jorge Burgaletaren *La Revista de Navarra* astekari liberalaren bigarren aroa 1880.ean gauzatu zuen; 1880.etik ere eta 1881.eko martxoaren

birarte *Diario de la Ribera* egunkari independentea; 1888.etik 1890.era *El coplero del pueblo* astekari satirikoa. Alabaina sortu zuen argitalpenik garrantzitsuen *Diario de avisos* egunkaria izan zen, hamaika urtetan zuzendu zuena, 1882.etik 1893.erako bitartean hain zuzen. Bere egunkarian orduan arras eza-gunak ziren *Pebres*, *«Como vaya yo!»,* edota *El gallo Morón* izeneko sailak idazten zituen Claro Barquero ezizenean. Orri haietan Pedro Oñorbek, Jose Serranok, Eugenio Fraukak, Ruperto Bosque eta abarrek idatzi zuten. Urbanen patera liberala zen osoro, alabaina, Gamazadarenean arras foruzalea agertu zen, eta horren harian, Gregorio Iribas legegizon tuterarrak *Los derechos de Navarra* izenburuko artikulu saila idatzi zuen 1894.eko otsailean. Laketu ziren nafar agintariak idazki hauekin, eta liburu soila argitaratzea erabaki zuten ber urtean. Urban hil ostean, Santiago Grassak hartu zuen egunkariaren ardura, baina Julio Subiranen *El anunciador ibérico* egunkariarekin zituen aharrak zirela eta, 1895.eko martxoaren 2an Urbanen egunkariarekin amaitzea eta berri batekin hastea erabaki zuen, eskuineko *El navarro* egunerokoarekin alegia, 1895.etik 1897.era iraun zuena. Aipatu *El anunciador ibérico* hura guztiz foruzalea zen, eta berau izan zen, Gamazadaren aitzakiz, Nafarroako herri guztietan, plaza edo kale nagusiari foruen izena jartzeko proposamena luzatu zuena. Proposamen horrekin batera, Gamazoren eskela famatua argitara eman zuen: *«Don German Gamazo, ministro que ha sido de hacienda, ha fallecido políticamente hablando»*, seale la tierra pesada.



etorri ahalean

Patziku Perurena



Uitzi = Ubizi < Urbizi (?)

Bada denbora franko Pamiela agitateak argitara zuen Mikel Belaskoren *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra* liburua leitu nuela, eta baita neure inguruko toponimorik ezagunenak gogoratu, tarteka iradoki zizkidan burutapen batzuk markatu ere. Denak hemen azaltzea luze joko luke, eta aspaldian buruan kaska darabilan bati ekinen diot gaurkoan.

Honela dio Mikel Belaskok: *«UITZI. Significado: desconocido. Comentario lingüístico: Tanto Julio Caro Baroja como Ricardo Ciérbide piensan, sin seguridad, en una variante ubi de vasco ibi, 'vado'»*.

Gauza gutxitan izaten dut nik segurantzia, eta gutxiago etimologia kontuotan, baina, Julio Caro Barojak eta Ricardo Ciérbidek sinalatzen duten *ubi<ibi* delakotik nere aldera *ubidetxoa* egin, eta urak pittin bat zikinduz, hauxe da herri honen izenaz egiten dudana apustua: *URBIZI > UBIZI > UITZI*; filologo adituek esan bezate posible den bilakaera fonetiko hori, baina, nere senak baitetz esanen luke, *LURBIZI* behialakoa *LUIZI* bilakatu den bezalaxe. Eta lehen ere nonbaiten esana naiz, dokumentu zaharretan maiz ageri dela *UBICI* deitura egungo *HUICI* orde.

Hala ere, nere irudipen huts horiekin aski izanen ez duzunez, jarriko nauzu txulo antxa eta erakutsiko dizut erudizio pittin bat. Honatx, hain zuzen, Julio Caro Baroja jaun jakitun zenduberriak *Sobre el mundo ibérico-pirenaico* liburuan dioena, ibaiek eta bailarek herri izen sorreran izan duten eraginaz ari delarik, 80-88 orrietan:

«Acumuer aparece como villa 'Aquamueri' en el siglo IX» eta 332. oharrean hauxe erasten dio *«relacionable con 'Aguas muertas', frente a 'Aguas vivas'»*. Eta lehentxeago, 1030

urteko dokumentu baten aipamena egitean, 321 oharrean, honako jendaki izen hauxe aipatzen du, oharkabean: *«Santi Urbici de Gallico»*. Eta ez da deitura hori, usuario gabeko huxkeria; geroztik ere leitua baitut dokumentu frankotan, eta ez gainera oso urrutikoetan. Honatx halako baten testigutza, Leitzako udal artxiboan jasoa: *«Juan Urvicio de Apezchea The-niente de Alcalde desta Villa de Yanc»*.

Lepoa parako nuke, arrasto horiei segiz, nere aldeko urbici garbiagoak eta hurbilagoak aurkitu baitetz, baina, beude horretan gaurkoz. Aski baitira aspaldi haunditik, herri eta ondorenez jendaki izenen sorreran, *'Aguas vivas'* edo *'Aigues vives'* eta euskal *Urvici>Ubici* delakoak nola ageri diren erakusteko. Zergatik orduan, Larraungo herri xalo honen izenak sorburu bera ez izan?

Non, izan ere, Uitzin baino ur biziagoak? Bi errota zaharrak ere, hurbilean indarreko errekarik ezean, herriatik urrutisamar baitziren. Leitzako muga mugan haundiena. Oraindik hantxe daude pareta zaharrak Korteko borda ondoan, eta Erasote errekatik hartzen zuen uraren kanalea ere ederki nabari du.

Izan ere, alde batetik Kantabrikoa eta bestetik Mediterraneoara isurtzen diren iturri bizi batzuk besterik ez baitu inguruan Uitzik. Leitzan askori aditua dakit, Uitziko Kaxetan, barrenak berotuxe eta piza egitera ateratzen ziren edaleek ere, banatu egiten omen zituztela pizarrakak: *«hik bota ezak Kantabrikoa, nik botako diat Mediterrantora»*. Bromak aparte, hantxe bereizten baitira bi aldeetarako isuriak. Hagitz izen aproposa dirudi beraz, herri izenak sortzeko usarioa eta orografia alde, behialako *URVICI* hark, gerora *UBICI*, *UICI* bihurtu denak. Eta hala ez bazen, zuek nola niri esanen.

Ziria

• Motxorrosolo •

Arbeloa joan zaigu

EZAGUNA DA IRAINGO APAIZ GAZTEAK ZELIBATOAZ GALDETU ZIONEAN Aitorgoitiko abadeak eman zuen erantzuna: *«Gure seme-alabek ez dute horrelakorik ezagutuko»*. Arbeloa kalonjea joan zaigu, isil-misilean, eta nonbait Aitorgoitiko abadearen iragarkizuna ez da oraingoz bete. Joan den asteko eskelan ez zen haren ondorengoan arrastorik.

Ana Gonzalez

Artisaua

«Artisaua zer den erabat zehaztu gabe dago»

Nafarroako Administrazioako ordezkariak eta herrialdeko artisau taldeetako ordezkariak biltzen dituen Artisautzako Aholkularitza Kontseilua sortu berri da. Ana Gonzalez kontseiluan dauden artisauetako bat da, eta bi aldeen elkarlanarekin euren baldintzak hobetuko direlakoan dago.

soslaia

Ana Gonzalez madrildarra da jaiotzez, baina duela zortzi urtetik bizi da Nafarroan. Etxebizitza eta lanerako tailerra Aramendia herrian (Lizarrako merindadea) jarri du, Juan Luis Pitxon lagunarekin batera. Lagunak erakutsi zion egun

biek ogibide duten bitxigintza. Bikoteak zilarrezko eta harri erdi-bitxizko bitxigintza lantzen du.



Egun bitxiak egiten dituen arren, aurretik beste zenbait beharretan aritua da. Botika laguntzaile izatek artisau bilakatu zen arte, zeramika lantzen hasi zenean. Eskuekin zerbaitetan aritzeko gogoia zuen, eta buztina aukeratu zuen lanerako.



Duela bost urte sortu zen Elkar Artisau Elkarte partaide da. Elkarrekin herrialdeko hamabost artisau ordezkatzeko dituen artisauak euren produktuak erakusteko eta saltzeko zituzten zailtasunen premiei erantzuteko eratu

zen. Ordutik egoera hobetu den arren, oraindik ere egiten duten artisautza lana behar bezala bideratzeko egiteko asko dagoela azpimarratu du.

hartu beharko luke, gurea ez da lan finkoa eta hilean sarrera jakin batzuk dituen.

■ Legean aldaketak eskatzen dituzue, baina artisautzan askotan eskaintzen den pro-

duktuaren estandarizazioa gero eta handiagoa da. Hori dela eta, zer eskaintzen duzue?

Presaka egindako beste herrietako artisautza gero eta gehiago sartzen ari da gure merkatuan eta gero eta estandarizatuagoa da. Hemengo artisauak horri kalitatearekin eta bere ezaugarri partikularrekin erantzun behar dio. Horrek dakar ezberdintasuna; ongi bukatu gabeko eta azkar egindako lanaren aitzinean, guk pertsonalitatea eta kalitatea eskaini behar dugu.

■ Estandarizazioaz gain, egungo lanbide asko desagertzen ari dira. Proposamenik egin diezue Administrazioari horiek nolabait berreskuratzeko?

Oraindik ez, baina iritsiko da. Egun artisau lanbide asko desagertzeaz daude ordezkariak eta, gehienetan, material horiek egun ez direlako erabili ere egiten. Nolanahi ere, artisau askok gaurkotutako teknika tradizionalak erabiltzen ditugu. Ez duzu zertan atzean gelditu, artisautza aldazen doa eta denborak aurrera egin ahala beste eskaera bat dago.

■ Urtero Iruñean egiten zen artisau feria ez da aurten izanena, eta haren ordez Nafarroako artisauaren egungo egoeraz eta etorkizunaz mintzatzeko herrialdeko zein kanpotik etorritako adituak izanen dira. Zuen arazoak kaleratzeko bide aproposa izan daiteke?

Bai, heldu den abenduaren 10ean eta 11n egitekoak diren jardunaldietan gure arazoak mahai gainean jartzeko aukera dago. Europako beste herrialdeetako adituak etortzekoak dira eta haingandil ikas daiteke. Beste herrialdeetara gehiago ireki behar dugu.

■ Baduzue harremanik Euskal Herriko beste artisau elkarteekin?

Nafarroako elkartearen artean badugu harremanik, baina beste herrialdeetakoekin asko ez. Trukeak egiteko asmoak izan dira, baina proiektuetan gelditu izan dira. Administrazioak gehiago egin du horretan, atzerriari feriak antolatuz eta beste herrialdeetako artisautza erakusketak eginez.

→ Irene Arrizurieta

IRUÑEKO GAZTEDIAREN ETXEAN Elkarreko beste partaide batzuekin egindako bileraren ostean harrapatu eta ogitartekoa jan bidenabar aritu zen erakunde berriaz eta artisauen arazoez.

■ Artisautzako Aholkularitza Kontseilua sortu berri da. Zein helbururekin?

Eratu berria denez, bilera bakarra izan dugu eta asko dago zehazteko. Dena den, helburua artisautzaren inguruan egiten den legedia, ematen diren laguntzak eta egiten diren ekimenak aurretik artisauarekin eztabaidatzeaz gain, gure aholkua aintzat hartzea nahi genuke. Orain arte ez gara elkartu herrialdeko artisau guztiak gero Administrazioarekin zuzenean gure arazoez hitz egiteko. Hortaz, bi aldeen artean egindako elkarlana bultzatzea litzateke helburua.

■ Kontseiluan, Administrazioako ordezkariak gain, Arbaso Hegoaldeko Artisauen Elkarteko kide bat eta Nafarroako artisau elkartearen ordezkariak biltzen dira: Lizarraldeko, Plazaolakoa eta Elkar. Indarrak batzeko premia zegoen?

Bai, bien ikuspuntuak batu beharra dago. Administrazioak zein artisauak elkarlanean aritzeko premia sumatu dugu. Bien iritzia trukatu eta Administrazioak bestearen lana lagunduz bi aldeen artean zer egin daitekeen pentsatu behar da.

■ Kontseilua premia batzuk daudelako sortu duzue. Zein da herrialdean artisautzaren egungo egoera?

Egungo egoera nahiko txarra da. Dena den, egoera ezberdinak daude artisauaren interesen edo gremioen arabera. Oraindik artisaua zer den erabat zehaztu gabe dago. Artisauak ez dute oraindik euren lanbidea behar bezala definitu. Orain zerbaitetan gelditzeko garaia etorri dela uste dugu.

■ Nafarroan 1988ko foru dekretu batek zehazten du artisautzaren garapena eta erregis-

tro bat ere badago. Egungo legediak laguntzen du definitze aurkitzen?

Ez. Aldatu egin beharko litzateke, artisauen sektore handi bat ez gaudelako ados egun indarrean dagoen legediarekin. Artisautza enpresei ongi egokitutako legea da, baina artisau asko ez gara enpresak, gurea autoenplegua da, eta horiek guztiak aintzat hartu behar dituzte sarrerak zein beharrak ezberdinak direlako,

eta egokitu egin beharko litzateke. Legeak guztiak berdintzen ditu, eta bakoitzaren beharretara egokitua beharko litzateke.

■ Zer aldatu beharko litzateke?

Administrazioak legalizatzeko balditza jakin batzuk eskatzen dizkizu, baina batzuek ezin diote horri aurre egin. Artisau batzuen arazoa ez da ez dugula legalizatu nahi, gure diru sarrerekin ezin dugula eskatzen zaiguna bete baizik. Beraz, legediak aintzat



LUIS AZARIN

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1997ko azaroaren 21a

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Pello Argiñarena

Tipo legala

PARAIKOKO UHINETAN EZAGUTU zintudan. Nahiz eta ordu-rako parlamentarioa izan, tipo legala omen zinen, un tio gual horietakoa. Rastaren mozorroa jantzita eseritzen zinen baimenik gabeko mikroaren aurrean.

Marleyren eta hauts zuriaren laguntzaz Iruñetik Jamaikarainoko bidaia egiten zenuen ordu pare batez asteoro. Bitxia benetan honelako jokaera zure kate-goriko jaun txit batentzat.

Geroago, pelotazoaren garaiak iritsi ziren. G.U.-ren aholkulari zuzena izatea onartu zenuen. Ondoren gertatutakoa ikusita, zaraitzuarak oker ulertu zituen. Ziurrenik biak batera.

Ez duzu meritu txikia. Azken 15 urteotan Parlamentuko eserlekuari tinko eutsi diozu.

Bitartean, alderdi barneko tirabiretan sokaren ezkerrean kokatzen duzu zure burua inongo konplexurik gabe. Sozialista eta obreroaren etiketa galdu ondoren progrearena ere galtzeko beldur, Marcoteguiaren amets gaiztoaren papera betetzen duzu gidioiak hala eskatzen duenean. Edukazioaren puntarik ez duen gizon bat alderdiko hezkuntza gaietarako arduradun.

Zu bezalako tipo legalak, esku batekin tolerantzia eskaintzen eta bestearekin belarrondoko ederrak ematen maisuak zarete. Azkenekoa irrati lizentzien banaketaren auzian UPNko astazakilen hitzekin eta ekintzekin bat eginik. Euskalerrria Irratiaren aldeko kanpaina ezkutua omen dago. Zu bai azkarra. Iruñerrian irrata euskaraz egiteko ez dugu zure baimenaren beharrik, karlitos! Zuk aspaldi galdutako zerbaitekin aski dugu.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Berriozar:** Bihar zortzi, **Benito Lertzundik** kontzertua emango du Mendialde ikastetxean. Sarrerak 800 pezeta balio du aurretiaz erosiz gero, eta 1.000 pezeta eskuraturaz gero.
- **Arzuri:** **Cuarteto Hot String jazz** taldeak kontzertua eskainiko du gaur Kultur Etxean 21:00etan.
- **Lizarr:** Gaztetxean **Skalariak, Pilt** eta eta **Piperrak** taldeak joko dute 23:30etan.

ANTZERKIA

- **Tafalla:** *Balada tierna de un gamusino* aurkeztuko du **T'Ombigo Teatrok** 20:00etan Kultur Etxean.
- **Atarrabia:** **Jordi Beltranen** taldeak *Antología* lana antzeztuko du gaur, 20:00etan, udal zineman.
- **Barañain:** Datorren asteartean **Txontxongilo konpainiak Erreka Mari** lana aurkeztuko du udaletxeko erabilera antzeko aretoan, eta asteazkenean **Pantha Rhei konpainiak Txintxilipurdi erregea** emango du. Bi lanak 18:00etan taularatuko dituzte.
- **Iruñea:** La Troppa Txileko antzerki taldeak *Viaje al centro de la tierra* lana eskainiko du etzi, Nafarroako Antzerki Eskolan, 20:00etan.

ERAKUSKETAK

- **Tafalla:** Heldu den abenduaren 8ra arte ikusgai daude Udala Kultur Patronatuko erakusketa aretoan **Javier Esquiroz** eta **Marino Ojeren** margolanak.
- **Elizondo:** **Pilar Compain** sen zeramika lanak ikusteko aukera dago Arizkunenea Kultur Etxean gaurtik abenduaren 5a arte. Aretoa zabalik dago asteleheneetik larun-

batera 18:30etatik 20:30etara.

- **Barañain:** Kultur Etxean Trotatiterek txontxongilo erakusketa dago zabalik datorren ostirala arte, hilak 28.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Iruñeko Anaitasuna, Nafarroa eta Donibane kirol elkarteek XVII. Iruñeko Mendien Argazki Lehiaketa antolatuko dute. Lehiaketara mendia, natura eta ingurugiroa

gai duten argazkiak edo diapositibak aurkeztu behar dira Anaitasunaren egoitzan (Iratxe monasterioa 2-A. 4088 posta kutxa. 31080) abenduaren 4ra bitartean. Argazki hoberenekin erakusketa zabalduko da Planetarioan abenduaren 16tik 19ra arte.

- **Tafalla:** Datorren asteartean, hilak 25, Jesus Maria Ukar Arte Ederretako doktorea Nafarroan disko forma duten hilarriez mintzatuko da.
- **Berriozar:** Bihar bertso afaria

izanen da Zulo Alai elkartearen 21:30etan. Xabier Amuriza eta Anjel Mari Peñagarikano ariko dira bertsoan.

- **Iruñe:** Euskara taldeak bertso afaria antolatu du bihar 21:00etan. Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua ariko dira bertsoan.

- **Iruñea:** Bihar, 18:00etan, herri meza izanen da Ibaiko Andre Mari parrokan (Errotazar). Ondoren Virgen del Rio abesbatzak kontzertua emango du.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini.....

Sinistuta nengoen Iruñeko mutilak oso ausartak zirela, eta niri ez dit inork deitu



LUCCY



**2(ZZ3)52033
32735ABF32**

Zenbaki gehiegi ote?
Edota lasterka ibili behar dut goizeko zortzietan zuek berotzeko?